



Egun gorrietan Sigi-sagako gogoetak

Elena Martinez Rubio

Bilduma: Saiakera Saila

Generoa: Saiakera

SALNEURRIA (BEZ bame): 14,50 €

ISBN: 978-84-9868-669-2

Formatua: 14 x 20,50 cm.

Orrialdeak: 142

Koadernaketa: paperezko azala

ARGITALPEN DATA: 2021eko ekainaren 21a

PRENTSAURREKO AURKEZPENA: 2021/06/29



Sinopsia

Gogoetagileak ibilian bezala hitz egiten digu orrialdeotan. Saiakeraren urrezko arauak onetsita, pentsamendu kritikoa lemazain, zorrotzasunez eta gertutasunez. Ibilian bezala beti, baina sekula ez *flâneur* axolagabearen moduan. Gizartean mugitzen diren indar ageriko zein isilpekoagoen arteko dialektikari etengabe erreparatuz, etengabeko solasaldi horren zergatiak eta eraginak ulertu, azaldu eta barneratzea helburu.

Eta –zergatik ez?– aldatu beharrekoak aldatzen laguntzeko, gure garaietan –eta historian zehar– noiznahi eta nonahi nagusi dabiltzan zentzugabekeria, bidegabekeria, sasiargudiatzea agerian jarri.

Hogeita bost pieza dotoretan eskatzen digu Elena Martinez Rubiok mundu-ikuskeraren baten berri zehatza, egin dituen bidaien harira eta bere zaletasunez zipriztinduta, askotariko gaietan zehar: historia, politika, literatura, antropologia, hizkuntzak, filosofia, zientzia...

Hortik «sigi-sagako gogoetak», alor eta bide desberdinetan zehar egindako hausnarketak baitira, literatur saiakeraren erregistroan emanak, bai estiloz, bai gaiaren beraren trataerari dagokionez ere.

Publio Terenzio zaharrak erakutsitako bidetik, giza kondizioari dagokion ezer ez zaio saiogileari arrotz. Ezta irakurlearen gozamina ere.

Egileaz

ELENA MARTINEZ RUBIO Bilbon jaio zen 1957an, baina Parisen eman zituen lehen urteak. Unibertsitate arteko ikasketak alemanez egin zituen Bilbon, Alemaniakoa du batxilergoa, eta han egin zuen Filosofia eta Soziologiako lehen zikloa ere. Lizentziatura, Bartzelonako Autonomoan, katalanez. Doktoretza tesia, Javier Sadabarekin, Hannah Arendti buruz egin zuen, Espainiako Estatuan lehena. EUTGn Euskal Filologia ikasi zuen. Berlingo Unibertsitatean euskara irakatsi du urtebetez, eta Literatura ikasi zuen bi urtez. Lau urtez Filosofia-eskolak eman ditu euskaraz EHU. Beste urtebete Frankfurten eman du euskara irakasten, bertako Kaukasologia sailean. Saiakera hauek argitaratu ditu, besteak beste: *Un pensamiento a la intemperie* (Hannah Arendti buruz) (1999), *Bidaia filosofikoak* (2015), *Jactaos vosotros* (2015). Poesia ere argitaratu du: *Vivíamos a la vuelta de la esquina* (Pasaia Hiriko lehen saria, 2010). Hiztegi gintzan ere aritu da: *Euskara-Alemana/Deutsch-Baskisch Hiztegia* (2006 eta 2011).